

ANDOLIN EGUZKITZAZ (1953-2004)

Jaun-andre euskaltzainok,
Andolin Eguzkitzaren senide eta adiskideok,
agur guztioi.

Duela bi urte, 2002.eko otsailaren 23an Andolin Eguzkitzak bere sarrera hitzaldia Santurtziko udalaren areto nagusian egin zuenean, senide, adiskide, lagun eta euskaltzainkidez inguraturik, niri egokitu zitzaidan, aitabitxi gisa, bera aurkeztu eta erantzura ematea, eta zuetariko gehienok entzun zenituzten, segur asko, haren bizitzako gorabehera nagusiak, bai eta gogo onez azpimarratu nituen haren lan ugariak eta merezimendu nabarmenak ere. Horiek guztiok Euskaltzaindiaren organo ofiziala den *Euskera* urtekarian argitaratuak daude jada («Bilbotik Santurtzira», 2001.1, 47 liburukia (2. aldia) 35-45. orr.). Gaur, bestelako eszenatokian eta zirkunstantzia arras ezberdinetan, ohiturak hala eskatzen duelako, orduko argibide haiek berriro errepikatu beharko nizkizueke, orduetik hona euskal kulturaren alde egindakoekin batera.

Baina, ene ustez, ez da itxurosoa gauza haiek guztiak orain berriz esatea, ez eta komenigarria ere. Azken bi hilabeteotan makina bat artikulu, hilberri, albiste, gogorapen eta iruzkin kaleratu dira paperez, internetez eta irrati-telebistez Andolin Eguzkitza Bilbaoren bizitza akademiko eta literarioaz. Eta guztiak arrazoia. Egia da, euskal idazle bat joan zaigu, bai prosa eta bai poesia aparteko sentiberatasun eta dotoreziaz landu diguna. Itzultzaile bikaina ere bazen, eta gure artean behar bezain landuak ez ditugun hizkuntza batzuen jakile trebea ere bai.

Unibertsitateko euskaldun irakaslea zen eta hori ere galdu dugu, bere arloan, hots, hizkuntzalaritza orokorrean, oso ona gainera. Euskal Idazleen Elkarteko kide eta bost urtez lehendakaria ere izana genuen, bai eta Eusko Jaurlaritzako Euskararako Aholku-Batzordearen kidea ere. Euskaltzaindia ere kide baliotsu bat gabe gelditu da, eta bere hutsunea luzaro deitoratuko dugu, tamalez.

Hori guztia egia da, baina bera ezagutu eta tratatzeko ohore eta aukera preziazgaitza izan genuen guztiok badakigu, jakin, askoz ere gehiago galdu dugula bere azken joanaldiarekin. Eta halaxe azpimarratu dute idazle eta adiskide ez gutxiak. Idazle, irakasle eta euskaltzaina baino gehiago haren pertsonaren falta dugu, eta hutsune gaitz eta erraldoi hori ezingo du inoiz inork ez ezerk bete. Gizakiok baina, kontsolatzeko, oroimena dugu, eta horixe omen da biziok zenduei mundu honetan eskain diezaiekegun jarraipen izpirituak bakarra, gure gogo-bihotzetan eta aho-belarrietan dirauten birtartean gurekin nolabait bizirik segitzen dutelako.

Dakardan bada hona nik ere Andolin Eguzkitza hori: pertsona, gizona, laguna, gure kaleetatik zebilena, gutariko askok ezagutu genuena, gurekin solasean aritzen zena, bere kezkek, pozak eta beldurrak kontatzen zizkiguna, gureak ere arretaz entzuten zituena. Gogora ditzagun elkarrekin haren zaletasunak, haren bitxikeriak, haren

umore ona, eta, zergatik ez, haren kerriaren batzuk ere bai, bera ere gizakia baitzen, guztiok ohi ditugun on-gaitz eta argi-ilunekin. Eta hori eginez, pasadizoak era nahasian bada ere kontatzean, haren memoriari omenaldi egiteaz batera, une batez geure artera berriz ekarriko dugu, geure gogo-bihotzetan bederen bizirik.

Santurtziko familia batean sortu zen Andolin 1953.eko abenduaren 6an. Eta haren guraso Antolin eta Celsa ezagutu ez zenituztenentzat, esan dezadan gure herriko andre-gizon jator eta zoragarriak izan zirela. Umoretsu, buru eta tratu oneko senar-emazteak eta abertzale porrokatuak biak. Eta Euskal Herriarenganako maitasun hori beren sei seme-alabengan etsenpluaz ongi txertatzen jakin zuten. Euskal kultura, bestalde, ez da liburu eta ikerketan lortzen den zerbait, bertoko giroan, etxean hasita, txikitandik eskuratzen den portaera baizik. Eta bizitzarekiko jarrera berezi hori, lagun-hurkoa beti errespetuz tratatzekoa, duintasuna, dotorezia, bertoko gauzetarako interes eta maitasuna, emandako hitza betetzen jakitea, zintzoki jokatzeko ohitura, dotoretasuna..., ene ustez, etxeko girotik jaso zuen Andolinek, nolabaiteko osmosiaz xurgaturik.

Gurasoei ikasirikoa beste ezaugarri nabarmen bat erlijioa izan zen, baina ez igandero meza eta axaleko errito hutsetan gelditzen den inertziazko sineste-multzotza ulerturik, baizik erro-erroan, sakon-sakonean eramaten den sentimendu moduan harturik. Azken garaiotako giro intelektual laiko eta antikatolikoa gora behera, neurri handiz Espainiako Elizak frankismoaren alde lotsagabeki izandako portaerak bultzatua, Andolinek horregatik beti jakin zuen kristautasunaren salbazioko funtsezko mezu izpirituala bereizten haren administratzaile mundutarretatik. Erlijio-kezka hori bere azken egunetaraino ukan zuen, eta teologi ikastaro batzuetan izena emanda zegoen, zoritxarrez ezin burutuak.

Euskaltzale genuen Andolin, gure hizkuntzaren maitale sutua, baina ez, soilki, euskara gure hizkuntza nazionala zelako, berez mintzaira interesgarri eta eder zeritzolako baizik. Hamabost urterekin euskara ikasten hasi zenetik, lexiko, morfologia eta sintaxiaren bide eta zidorretatik zehar zihuan ginoan, harriiduraz harriidura, ezusterik ezuste, bitxiz beteriko oihan zoragarri batean barnertzen zela iruditzen zitzaion. Lehenik bizkaiera ikasi zuen, eta geroago beste euskalkiak eta batua ere bai. Idazteko orduan ia beti eredu literario nazionala erabili arren, lagun artean bizkaieraz jarduten zuen. Euskaltzaindian bestalde, beti ahalegintzen zen Euskara Batuko hiztegian mendebaldeko euskarako berba bereziak ere ate nagusitik sar zitezen, hor ere bere bizkaitartasuna ez zela komenientzia hutsezkoa argiro erakutsiz.

Euskararekiko konpromisoa bera ere, ez zen azken ordukoa. Euskaldun berri izenak engaina gaitzakeen arren, ia bizitza osoa zeraman Andolin Eguzkitzak euskaldun izaten, euskaraz mintzatzen, hizkuntza lantzen, euskal aldizkarietan idazten, hitzaldiak ematen, kultur ekitaldiak antolatzen eta haietan parte hartzen, beti ere euskal hitzunen eskubideen alde. Ez genuen, azken orduan norbaiten mauka barrutik ateratako ezezagun horietako bat, kargu bila eta botere gosez ustekabean agertua, atzean bide luze eta merezimendu luzeagoak zeuzkan pertsona baizik.

Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasten ziharduenean ere, jada bertako Euskal Kultur Mintegian ari zen, euskara eta euskal kultura bultzatzen. Gazteen artean abertzaletasuna lantzeko beta izaten zuen. Horrek disgusturen bat ekarri zion, jesuitek unibertsitateetik zati baterako kanporatu baitzuten, handik urtebetegarrenera, portaera ona erakusteagatik, berriz onartu arren.

Euskararen aldeko bidean ez zuen paradarik galtzen gure hizkuntzaren aldeko pro-selitismoa egiteko.. Gogoan dut, adibidez, duela hogeita bost bat urte, Baionan ginela

eta, ez dakit zer erosteko, hango denda batera sartu ginela. Andolinek zerbitzariari euskaraz hitz egin zion, baina honek, Iparraldean, zoritxarrez, frantximenten artean oraintsu arte ohikoa izan den displizentzi eta arduragabekeri aurpegiaz, Molière-ren hizkuntzan euskaraz ez zekiela erantzun zionean, gure Andolini bere arimarik apostolutarrena azaleratu eta, frantses ederrean honelako zerbait esan zion: «Baina andrea, ez al dakizu Euskal Herrian bizi zarela eta bertoko hizkuntza euskara dela? Zure bezeretarik asko, gainera, euskaldunak dira. Beraz on zenuke euskara ikasteaz arduratuko bazina».

Nik neuk, egia esan, aitortu behar dizuet, ez nengoela dendetan era horrelako sermoiak entzuten oso ohiturik. Horregatik, saltokitik irtetean, Andolinek, bere ohiko zintzotasunaz, esan zidanean bere jarrera eta predikarekin andre hura ordutik aurrera konturatuko zela Euskal Herrian euskara jakitea beharrezkoa zela, eskeptikoki erantzun nion, garai hartan Iparraldearen egiazko egoera nolakoa zen jakinda, andre hark aterako zukeen ondorioa, zorigaitzez, oso bestelakoa zatekeela, hots, bere buruari galdetuko ziola nongo zoroetxetik alde eginak ote ginen biok, garai hartako Frantzia euskara ikasteko eskatzea erokeria hutsa baitzen. Baina, halere, aitortu dezagun Eguzkitza moduko askoren desorduko idealismo goiztiar hark oraingo errealitate hobea ekartzen lagundu duela: gaur behintzat inork ez luke Andolinen jarrera hura erokeriatzat joko Baionan, eta euskararen ofizialtasuna, gero eta aldarrikatuagoa da, departamendu propioarekin batera. Beraz hemen ere Erasmok arrazoa bere erotasunaren laudorioan. Izan ere, gizarte aldaketa guztietan ohikeriaren inertziaren aurka aitzindari izatea gogorra izan arren, eta gaizki ikusia izateko arriskua badakar ere, denborak, azkenean, justizia egiten du, eta zuenari arrazoa ematen.

Poliziarekin ere zoritxarreko enkonturen bat izan zuen garai hartan. Poliziak haren kurtsoko lagun bat, talde espainolista ezkertiar bateko militantea, harrapatu zuen, eta hark, bere egiazko taldekideak ez salatzeagatik, Andolin bezalako abertzaleen izenak esan zituen. Horren ondorioz, Andolinek kartzelara joan behar izan zuen. Ez zuen horregatik duintasuna eta patxada inoiz galdu. Dakigunez, polizia etxera etorri eta bere gela arakatzan hasi zitzaionean, Andolinek, bere ohiko lasaitasun-tonuaz, honela esan omen zion: «Aizue, mesedez ez nahasi nire bibliotekako liburuak, alfabetoz ordenatuak ditut eta».

Frankismo garaiko polizia haiek, noski, harriturik gelditu ziren, eta are harrituago, berekin komisaldegira eraman behar zutela esan ondoren, Eguzkitza gazteak, trentina galdu gabe, honela erantzun zienean: «Bai, berehalaxe noa zuekin, baina itxaron pixka bat. Sukaldeko hozkailura joan behar dut, baso bete esne edateko». Diotenez, kartzelan zegoela, ea zergatik ez zioten izara-maindirerik ematen galdetzen zuen xaloki, ohe haietan burusiak besterik ez zegoen eta.

Deustuan zegoela alemana ikasten hasi zen. Praktikak egiteko Alemaniako ospitale batera joan zen, epileptiko eta nerbio-gaixotasunak zituzten pertsonak zaintzera. Bertan zer egiten zuen galdetzen genionean honela erantzuten zigun: «Alemanak oso jende metodikoak izaten dira eta gaixoak beti kontrolpean izaten dituzte. Niri blok bat ematen zidaten eta ordu egokian pazienteak bisitatzen joan behar izaten nuen, espero zen orduan atakea etortzen ote zitzaien egiaztatzen». Eta atakea izaten zutenean, zuk zer egiten zenien? itauntzen genion. «A, koadernoan pazientearen ondoan gurutze bat idatzi, dena ondo zihoala markatzeko, eta kasurik egin gabe hurrengo pazienteagana joan, horrek ere ordu egokian atakea izaten zuen ala ez ikustera».

Euskararen ondoan, gehien gustatzen zitzaion hizkuntza, zalantzarik gabe, alemana zen. Koloniako Unibertsitatean bi urte eman zituen Hizkuntzalaritza Institutuan



eta mintzaira horretan hain ohikoak izaten diren hitz luzeak biziki maite zituen, eta maiz euskaraz ere era horretako berba kilometrikoak sortzen saiatzen zitzaigun, euskaltzain gehienok entusiasmatzen lortu gabe baina. Halere, hitz berriak eratzeko orduan, alemanari buruzko oso informazio fidagarria eskaintzen zigun beti, maiz kontuan hartua.

Askok ez badakite ere, Andolin oso musikazalea zen. Nerabea zelarik solfeoa ikasten jardun zuen Santurtziko Miren Rojí andrearekin, segur aski Bizkaiko musika-maistra onen eta aldi berean zorrotzenarekin. Haren ikasleek behintzat fama ezin hobe eta kalifikaziorik gorenak erdiesten zituzten Bilboko kontserbatorioan. Txistua jotzen ere ikasi zuen eta sasoi batean Natxo de Feliperekin jardun zuen kantari.

Kanpoan ikasketak egiteko beka asko eskuratu zituen Andolin Eguzkitzak, eta Mitxelenak zioenez, bera zatekeen garai hartan kanpoan ikasteko beka gehien jaso zituen euskalduna. Harat-honatean horretan Estatu Batuetara heldu zen. Iowako unibertsitatean Hizkuntzalaritza-Magistergoa eta Californiako UCLA unibertsitatean doktorego tesia burutu zuen.

Bere bidaietan, ahal zuen guztietan Andolinek trenea aukeratzen zuen. Txikitandik trenzale amorratua zen. Jesus txikia galdu zenean bere gurasoek tenpluan Legeko doktoreen artean kausitu bazuten, umetan gure santurtziarra herrian galdu zen batean, geltoki ondoan aurkitu zuten bere gurasoek, trenen maniobrei adi-adi. Heriotza goiztiarrek ez dio utzi betetzen bere ametsetako gurari berezia, hots, transiberiarrean joatea. Halere, Roblako trenea turismorako egokitu zenean, Andolinek hartan lehenbiziko bidaiaria egin zuen, bai eta, bide onetik jakin dudanez, makinista konbentzitu ere, trenea gidatzen utz ziezaion ...eta lortu ere bai!

Ibiltari izatea, bestalde, umetatik geografia ikasteko grinatik zetorkion. Eta zaletasun hori beti eraman zuen aldean. Ez dezagun ahantz, besteak beste, munduko Estatuak, herritarren eta hizkuntzen izenak euskaraz finkatzeko Euskaltzaindiarentzat egindako lan bikaina. Geografia pertsonalki ezagutzeko gogo berberorrek bultzatu zuen Euskal Herri osoa bisitatzea, eta berarekin mintzatuz gero berehala eta erraz igartzten zitzaion ia hiri, herri eta herrixka guztiak ezagutzen zituela, iparraldean zein hegoaldean.

Euskaltzaletasuna txokokeriatzat harturik, gure kulturari erdeinuz begiratzen dioten erdaltzale batzuek maiz errepikatzen dute euskal abertzaletasuna munduan zehar bidaiatuz osatzen den gaitza dela, kanpoko hizkuntzak ikasiz, atzerriko kulturak ezagutuz. Andolin Eguzkitzak ergelkeria hori esaten duten erdaldun gehienek baino hizkuntza gehiago zekizkien eta segur asko atzerriko toki gehiago zapalduak zeuzkan, eta halere, bere euskalduntasunaz lotsatu beharrean, besteekiko konparazioan sendotu besterik ez zuen egin bere herriaganako maitasuna, euskaldun izateaz naturaltasun osoarekin burua beti tente eta harro. Aldi berean, unibertsaltasuna maite zuen, eta kanpoan ikasirikoa herrira ekartzen edo birmoldatzen saiatzen zen. Hori literatura arrotzak euskaratzeko interesean nabarmentzen zitzaion, Stanandinos Kavafis greziarraren poemak (1995) itzultzean edo azkenik plazaratu zigun Gunter Grass-en obra euskaratzean: *Batzarra Telgtenen* (2002).

Sormen- zein itzulpen-lanetan, Eguzkitzaren ezaugarri nabarmenena, nagusia ez esateagatik, sentiberatasuna zen, gauzak esateko finezia, zehaztasun dotorea, ñabardurak adierazteko ardura, beti hitz aproposenak aukeratzeko sena. Egia da, bestalde, probokatzaile gisa jokatzu, ohiko idazleak baino urruntxeago joanez, inoiz euskalki ezberdin eta urrunetako hitzak elkartzen zituela, eta «berba egin gura ukan dut» bezalako perpausak sortzen zituela, idazleak eduki behar duen askatasunari apelatuz, eta aldi berean etorkizuneko literatur hizkuntzaren aldeko apustu garbia bezain ausarta egiten zuen, gaur zail eta irrealizat jotzen duguna geroak, euskal irakaskuntzaren poderioz eta barne harremanen eraginez, erraztu eta normalduko duelakoan.

Eguzkitzaren beste ezaugarria apaltasuna zen. Pertsona erabat zintzo eta noblea genuen, maltzurkeriarik gabea, gauzak sentitzen zituen bezala esaten zekiena, baina beti errespetuz. Sentibera zen oso, eta inori hitzez edo egitez minik ez egiteko ardura berezia izaten zuen. Besteei minik ez egiteaz gainera, ahal zuen neurrian on egiten saiatzen zen. Euskal Herriko Unibertsitateko Esperientziaren Ikasgeletako ene ikasle batek –adineko andrea bera– nahigabe handiz etorri zitzaidan Andolin hil zela jakin zuenean. Iturribidera bizitzera joan baino lehen María Muñoz kalean andre horren ondoan bizi izana zen eta berak aitortu zidan Andolin Eguzkitza hara bizitzera joan zenean, lehenago pertsona zaharren etxea besterik ez zena, erabat argitu eta gaztetu zela haren eraginpean. Ikasle berberak kontatu zidanez, behin etxe hartako andre zahar batek argiaren fakturak ez zituela ongi ulertzen eta horregatik maiz diru gehiegi ordaintzen zuela ohartu zen. Andolin berehala konturatu zen andre hark ez zekiela irakurtzen. Gure lagunak etxea utzi baino lehen andre hark horrenbeste ikasi zuen, Andolinek eman zizkion klase desinteresatuei esker.

Inor ez samintzeko ardura horrek bazuen bere ifrentzua. Besteen irainek, mespretxuek eta bazterturik sentitzeak min berezia ematen zion. Batez ere bere lankide edo lagun ustekoren batengandik zetorkionean. Inoiz adiskideoi esperientzia horiek kontatzen zizkigun, eta atsekabez aitortzen zigun ez zuela ulertzen zergatik halako pertsonak zeukan berarekin hain portaera desegoki, faltsu edo zatarra. Izan ere, zauririk mingarrienak ez zaizkigu eskuarki heltzen etsaiengandik, adiskidetzakoengandik baizik, eta unibertsitatean, gizarteko beste edozein tokitan bezala, aldizka adibide ez gutxi eskaintzen digu. Andolin, hortaz, kristala bezalakoa izaten zen: gogor eta gardena, baina aldi berean hauskorra.

Bera behintzat lagunaren lagun ona zen. Beti egoten zen laguntzeko prest, eta astirik edo modurik ezagatik ezin zuenean, ea laguntza hori hurrengo batean eman ote zezakeen galdetzen zuen apalik, une hartako ezintasuna deitoratuz. Besteekiko kezka horregatik, Andolin ez zen bat ere bakarzale. Aitzitik, bizitza soziala ategin zuen eta ongi sentitzen zen lagunartean, eta nolabait laguntasunaren laguna zela esan genezake. Talde-lana antolatzen eta gidatzen ere trebetasun nabaria erakusten zuen, eta Eus-

kaltzaindian bertan horren adibidea izan dugu Hizkuntza Atlasarekin. Horregatik segur naiz Beñat Oihartzabalek ongi kontuan izan zituela ahalmen horiek iaz kargu horretarako proposatu zuenean.

Mitxelenak behin idatzi zuen euskaldunok aski logikazaleak izaten garela. Hori egia baldin bada, Andolin Eguzkitza Bilbao euskaldunik euskaldunena litzateke, hizkuntzari dagokionez behintzat, orain arteko ohitura, tradizio eta bestelako kontsiderazioen gaintetik berak buruan logika baitzeukan, logika hori azken bururaino eramanez gero, ondorioaz gauza asko, grafiaz, formaz etab. hankaz gora utzi behar izan arren. Alde horretatik setatia izaten zen, burugogor xamarra, beste askoren antzera, derradan bidenabar. Haren omenez Santurtzin antolatu zen hitzaldi errezitaldi batean, Andolin Eguzkitza Azillonako markesarekin konparatu nuen, hots, Bilbao-Donostia arteko trenbidea ezarri zuenarekin, horrek Atxuriko geltokian, bere harrizko eskulturarekin batera, lematzat hitz hauek dauzka eta: «*Egija gugaz, danen aurka*». Esan banuen esan nuen. Hitzaldia amaitu nuenean Andolinen anaia Iñaki, niregana etorri eta beren aitita, Dionisio Bilbao, amaren aita, Fikan Azillonako markesaren sortetxean jaio zela aitortu zidan. Kasualitatea!

Euskara maite zuela Andolinek esan dut, eta gure hizkuntzarekin batera Euskal Herria bera ere bai: bere jendea, bere izaera, bere nahiak eta etorkizun-ametsak. Horregatik, gorago aipatu dudanez, politikan ere jardun zuen. Beti ere ezker aldean, klase ahulenen fabore, eta bide demokratiko hutsetatik abiatuz. Halere, ongi eta hurbil ezagutzen zituen euskaldun batzuek Euskal Herriaren egoera larriagatik pairatzen zuten sufrimendua eta bizitzen zuten sentipen agonikoa, eta borroka-bide batzuk onartu eta justifikatu ez arren, ulertu bederen egiten zituen. Gauza jakina da azken hauteskudetean Aralar taldean agertu zela, eta, lehen agerraldi publikoa izateko, pozik zegoen bere alderdiak lorturiko emaitzekin.

Ez da beti erraza izaten seme-alaba ugariko senitarteetan guztien artean harmonia eta tratu ona mantentzea. Esperientziak behintzat sarritan bestelako giro txarra erakusten digu: inbidiak, ezin ikusiak eta kaindar gorrotoa, adibidez. Eguzkitzatarrena, ordea, barne-bake eta oreka onaren eredu horietako bat izan dela esango nuke, neba-arreben arteko harreman eder bezain inbidiagarriekin. Andolinek biziki maite zuen bere familia eta lotura horiek jagoten ahalegintzen zen.

Amerikan ohitura hartuta, astero gimnasia joaten zen, eta ohitura eta jan-edanetan bere burua zaintzen. Ez zuen alkoholik inoiz edaten, Euskal Herrian bekatu larria berau, ez eta tabakorik erretzen ere, eta laguneren artean zegoenean behintzat, jate urrikoa izaten zen. Etxekoek ordea, senideen artean egoten zenean entrama onekoa izaten zela jakinarazi didate, eta arras gozozalea. Edozein kasutan dieta gordetzen ahalegintzen zen.

Iazko udazkenean Euskal Herriko Unibertsitatean Hizkuntzalaritza Orokorreko katedra batera aurkeztu zen. Bai eta atera ere. Ordutik aurrera, bazirudien lorturiko maila akademiko berri horrek egonkortasun lasaia eskainiko ziola. Halaxe pentsatzen zuen berak ere, eta hil aintzintxeago Joseba Agirreazkuenaga eta Miren Onaindiaren etxean irakurri zigun poema batean, kostako haitzei sendoki loturik dauden lanpernen lasaitasunaz mintzo zitzaigun, horiek uhinen eraso bortitzak gorabehera, egonkor eta itxaropentsu bizi dira eta. Baina garbi dago, Axularrek gogoratzen zigunez, ezin dugula inoiz etorkizuneko segurantzarik ukan, eta gizakion proiektuak patuak darabiltzala itsuki. Eta horretara joan zaigu lagun zintzoa, guztiok beragandik anitz arlotan oraindik asko espero genezakeenean.

Amari dezadan bada Andolin Eguzkitzaren oroitzapenez egindako zirriborro desordenatu hau, gure adiskidearen ibilbidea laburbilduz: Herriko semea izan zen eta bere

nazioaren kezka, sufrimendu, loriak eta miseriak bereganatzen jakin zuen. Bere herriari zegoen zulo beltzetik ateratzen laguntzeko ez zion eskua eta ahalegina ukatu. Txikitari euskara jakin ez arren, gure herriaren hizkuntza jatorra berreskuratu eta maisuki landu zuen, ingurukoei etsenplua emanez. Ideologia eta politika guztien aitzinean humanismoa jarri zuen, iraultza guztiak, nazionalak zein sozialak, pertsona eta beronen eguneroko amets eta premia gizatiarrak baztertzen dituzten ginoan, antzuak bezain alferrak direlakoan. Bera ezagutzeko ohorea izan genuenok zinez esan dezakegu Euskal Herriari igaro zela bere bidean guztiei ongi eginez; bere irribarrea guztioi eskainiz, eta horrexegatik gure herriaren oroimenean ondo txertaturik iraunen du haren izenak.

Bilbon, 2004-V-28

*Xabier Kintana Urtiaga,
Euskaltzain osoa eta Erakundeko idazkaria*